



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

1. Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE).....	2
2. Alokairua sustatzeko diru-laguntzak.....	3
3. Salmentarako Babes Ofizialeko etxebizitzak	7
4. Lurzorua kostu bidez eskuratzeko diru-laguntzak, ondare publikoak osatzeko.....	9
5. Partikularrek eta jabekideen erkidegoek birgaitze-lanak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzen bizigarritasuna hobetzeko, eraikin-egituraren kontserbazioa eta mantenua hobetzeko, desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna ahalbidetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko	10
6. Etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko dirulaguntzak (Renove Programa), euskal autonomia erkidegoko ondare eraikian esku-hartzeko proiektuak egiteko eta eragindako obrak gauzatzeko	16
7. Dirulaguntzak Udalentzat, toki-erakunde txikientzat eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzat, irisgarritasun-planak egiteko eta eguneratzeko, eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko	18
8. Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzen bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna bultzatzeko eta berritzen laguntzeko proiektuak sustatzeko dirulaguntzak, Eraikal Programa	20
9. Natura-Ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuei dirulaguntzak ematea	22
10. Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzaten dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, Tokiko Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen-Agentziei eta Tokiko Merkataritza-Sozietateentzat dirulaguntzak	23
11. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei, Eskolako Agenda 21 Programa garatzeko dirulaguntzak	26
12. Ingurumen-arloko boluntario-proiektuak egiten dituzten Irabazi-Asmorik Gabeko Erakunde pribatuentzat dirulaguntzak	28
13. Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak	30
14. "Udalen Informazio Geografikoa" Programaren xedea da dirulaguntzak ematea, informazio geografikoa hobetzeko, udal mapak egiteko eta, ondoren, horiek hedatzeko	33
15. 2018ko ekitaldirako, udal-plangintzan eta -hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko dirulaguntzak	35
16. Paisaien ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udalei eta Arabako Udalerrien Kontzejuei diru-laguntzak	37
17. ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+I Programa) «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak	39



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE)

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI hiperesteka)

EHAA, 119. zk., 2015

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitzaren 3/2015 Legeak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen du eta etxebizitza babestua edo ostatu babestua alokatzeko erregimena eskaintzen du, baita etxebizitza librea ere, baldin eta halakorik eskuragarri badago bitartekaritza-programa baten ondorioz edo bestelako arrazoiengatik. Etxebizitza edo ostaturik ezean, eta subsidiarioki, laguntza ekonomikoen sistema bat ezarriz gauzatu ahal izango da gogobetetasun hori.

Eskatzaileek etxebizitza edo ostatua eskuratzeko aukera dutela bermatu nahi da, alokairu bidez edo, halakorik ezean, laguntza ekonomiko baten bitartez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an, 4.051 etxeri aitortu zaie etxebizitza edukitzeko eskubide subjektiboa. Esleipenean, lehentasuna eman zaie 2.760ri. Etxebizitzen 739 esleipen ebatzi dira.

Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoari dagokionez, 552 eskatzaileari ematea ebatzi zen, 432 daude itxieran eta 118 iraungi dira. 2018ko aurrekontuaren hasierako zuzkidura 2 milioi eurokoa izan zen eta 1.084.613,27 euroko ordainketa.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikusia</u>	<u>Emaitza</u>
Aitortutako Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa duten etxe kopurua	2.500	4.051
EPE ordainketa	2.000.000 € *	1.084.613,27 €

* 2.000.000 euroko aurreikuspenaren barruan sartzen dira EPE eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO), Lanbidek kudeatua.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Alokairua sustatzeko diru-laguntzak
--

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

Babes ofizialeko etxebizitzaren araubidea:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-neurri buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurri buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, Kreditu-erakunde eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).
- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzeko: «2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- Kreditu-erakundeekiko 2011. urterako finantza-lankidetzarako HITZARMENA, etxebizitza eta lurzorua arloko jarduketa babesgarri buruzkoa.

Babes ofizialeko etxeen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura bizitokiak prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena,



honen akatsak zuzentzekoa: «2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailleen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Alokairua sustatzea:

- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, Kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa:

- 100/2004 DEKRETUA, 2004ko ekainaren 1ekoa, honako dekretu hau aldatzen duena: «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. Baltzu Publikoari programa kudeatzeko ardura ematen diona. (VISESA). (2004ko ekainaren 11ko EHAA, 110. zk.).
- 61/2009 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, dekretu hau hirugarrenez aldatzen duena: 316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta programa kudeatzeko ardura «Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA» sozietateari ematen diona (2009ko martxoaren 26ko EHAA, 59. zk.).
- 146/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).
- AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko Agindua aldatzekoa. (2004ko abenduaren 16ko EHAA, 239. zk.).
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren lagapen-baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko agindua aldatzen duena. (2009ko azaroaren 23ko EHAA, 225. zk.)
- 466/2013 DEKRETUA, 2013ko abenduaren 23koa, «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena. (2013ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:

- Kreditu-erakundeekiko 2011. urterako finantza-lankidetzarako HITZARMENA, etxebizitza eta lurzoruaeren arloko jarduketara babesgarriei buruzkoa.
- 146/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko



Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. Izapidean (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa:

- 43/2012 DEKRETUA, martxoaren 27koa, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) sortzeko dena. (2012ko martxoaren 30eko EHAA, 66. zk.).
- 180/2014 DEKRETUA, irailaren 23koa, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programa sortzeko dekretua aldatzeko dena (martxoaren 27ko 43/2012 Dekretua). (2014ko irailaren 30eko EHAA, 185. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI hiperesteka)

EHAA, 119. zk., 2015. urtea Etxebizitzaren 3/2015 Legea

EHAA, 170. zk., 2018. urtea 2018ko etxebizitza-kredituen publizitaterako Agindua

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitza eskuratzea da sustatu nahi dena; horregatik, bitartekoak alokairura bideratuko dira lehentasunez.

Dirulaguntza hauek aurreikusten dira: alokairu babestutako etxebizitzaren sustapena, etxebizitzak eskuratzea alokairu babestuari begira eta zuzkidura-ostatuaren sustapena. Errentamendua sustatzeko lerro horretan, diruz laguntzen da landa guneko udal-etxebizitza birgaitzea.

Halaber, alokairu babestutako etxebizitzaren aldi baterako lagapena sartzen da, zehazki, Jaurlaritzaren jabetzako etxebizitzak dira hainbat talderi zuzenean esleituta.

Horrez gain, Bizigune programa kudeatzen da etxebizitza hutsak mobilizatzeko, baita merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa ere (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa). ASAP programaren helburua da merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko erraztea, errentarientzat arrazoizkoak diren prezioetan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018. urteko ekitaldiaren errentamendua sustatzeko aurrekontu-zuzkidura 12.000.000 eurokoa da, 2018/2020 urteetarako. Tokiko erakundeek markatutako helburua 251 etxebizitza sozial eta zuzkidura-ostatu eraikitzea zen. Landa-ingurunean birgaitzeko laguntzen eskabide bat ebatzi da errentamendua sustatzeko lerroan. Dirulaguntzaren zenbatekoa 49.622 eurokoa da, 2018/2019 ekitaldietarako.

Alokairu babestutako etxebizitzak aldi baterako lagatzeari dagokionez, 181 etxebizitza esleitu dira zuzenean 2018an.

**BIZIGUNE PROGRAMA**

2018 urtearen bukaeran, 5.325 etxebizitza eta garaje libre zituen Bizigunek, alokairu babestuan erabiltzeko hartuta. 2018ko abenduko datuak oinarri hartuta, 686 etxebizitza lortu dira ekitaldi horretan. 2018an, 23,5 milioi euro izan da Alokabide SA sozietateari Bizigune programa kudeatzeko egindako transferentzien zenbatekoa.

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), MERKATU LIBREKO ETXEBIZITZEN ALOKAIRURAKO BITARTEKARITZA-PROGRAMA

2018 ekitaldian, homologatutako Bitartekaritza Agente Laguntzaileen kopuruari eutsi zaio, eta 3 etxebizitza gehiago dago. Guztira, 263 etxebizitza metatu dira.

Programak ez du amaitzen garapena, gutxi dira ekitaldi bakoitzean batu diren etxebizitzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Zuzkidura-bizitokiak sustatzea	251	0
Alokairuko etxebizitzak aldi baterako lagatzea		181
Landa-inguruneke birgaitzea		1
Bizigune Programa	5.400	5.325
ASAP Programa	400	263



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Salmentarako Babes Ofizialeko etxebizitzak

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. (2008ko azaroaren 19ko EHAA, 222. zk.).
- 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, Kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).
- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzekoa: «2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- Kreditu-erakundeekiko 2011. urterako finantza-lankidetzarako HITZARMENA, etxebizitza eta lurzoruaren arloko jarduketa babesgarriei buruzkoa.
- 146/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaren arloan. Izapidean (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri hiperesteka)

<u>EHAA, 119. zk., 2015. urtea</u>	Etxebizitzaren 3/2015 Legea
<u>EHAA, 170. zk., 2018. urtea</u>	2018ko etxebizitza-kredituen publizitaterako Agindua



4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea erraztea da programaren helburua.

Etxebizitza libre erabiliak erosteko dirulaguntzak, hiriko eremu zehatzetan, Birgaitze Integratuko Eremuetan eta jarduketa integratuak ahalbidetzen dituzten eremu hondatuetan baldin badaude. Gainazal-eskubideko etxebizitza babestuen sustapena ere diruz lagundu nahi da. Programa-kontratuen bidez gauzatzen da VISESA-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A. elkartearekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko eta lehiaketa publikoko dirulaguntzak. Urtero, publizitatea ematen zaie etxebizitza libre erabilia eskuratzeraz zuzendutako kredituei, sailburuaren aginduaren bidez.

2018ko ekitaldian, 100.000 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusi da. 97.139 euroko dirulaguntzarekin, 53 etxebizitza eskuratu ziren. Hitzarmen finantzarioaren babesean, 2 mailegu gauzatu ziren, 221.434 eurokoak.

Sailak babestutako eta hitzartutako etxebizitzak sustatzeari dagokionez, 96 etxebizitza hasi ziren 2018an.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskuratutako etxebizitzaren kopurua		3
Eragile pribatuek eta kooperatibek azalera eskubidean sustatutako etxebizitza kopurua	950	813
VISESAk eraikitako etxebizitza-kopuru	200	117



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lurzorua kostu bidez eskuratzeko diru-laguntzak, ondare publikoak osatzeko

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2010eko otsailaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, berehala eraikitzeko den lurzoruaren urbanizazioari aplikatzeko finantza-neurriei buruzkoa, babes publikoko etxebizitzak lehentasunez sustatzeko. (2010eko otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI hiperesteka)

<u>EHAA, 119. zk., 2015. urtea</u>	Etxebizitzaren 3/2015 Legea
<u>EHAA, 170. zk., 2018. urtea</u>	2018ko etxebizitza-kredituen publizitaterako Agindua

4.- Diru-laguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurzoruaren udal-ondarearen prestakuntza da programaren helburua, etxebizitza babestua sustatzeko.

Udalei, tokiko organismo publikoei eta tokiko sozietate publikoei dago zuzenduta laguntza-lerro hau.

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko diru-laguntzak. Urtero, publizitatea ematen zaie dirulaguntza-lerro horietara zuzendutako kredituei sailburuaren aginduaren bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko ekitaldian, 100.000 euroko aurrekontu-zuzkidura egon zen. Diru-laguntza-lerro horri dagokionez, ez da jaso eskabiderik azken ekitaldietan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lortutako lurzoruan eraiki daitezkeen etxebizitzaren kopurua		0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Partikularrek eta jabeekideen erkidegoek birgaitze-lanak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikin-egituraren kontserbazioa eta mantenua hobetzeko, desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna ahalbidetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko

2.- Araua

Babes ofizialeko etxebizitzaren araubidea:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-neurri buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2011ko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko dena. (2011ko irailaren 30eko EHAA, 187. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzekoa: «2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzkoa. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Babes ofizialeko etxeen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa (2010eko azaroaren 18ko EHAA, 222. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honen akatsak zuzentzekoa: «2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko



etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa». (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa:

- 100/2004 DEKRETUA, 2004ko ekainaren 1ekoa, honako dekretu hau aldatzen duena: «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. Baltzu Publikoari programa kudeatzeko ardura ematen diona. (VISESA). (2004ko ekainaren 11ko EHAA, 110. zk.).
- 61/2009 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, dekretu hau hirugarrenez aldatzen duena: 316/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, Etxebizitza Hutsaren Programa sustatu eta bultzatzen duena, programa horren araubide juridikoa ezartzen duena eta programa kudeatzeko ardura «Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA» sozietateari ematen diona (2009ko martxoaren 26ko EHAA, 59. zk.).
- 146/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloan. (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).
- AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko Agindua aldatzekoa. (2004ko abenduaren 16ko EHAA, 239. zk.).
- AGINDUA, 2009ko azaroaren 4koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, «Etxebizitza Hutsaren Programa»ren lagapen-baldintzei eta esleipen prozedurari buruzko agindua aldatzen duena. (2009ko azaroaren 23ko EHAA, 225. zk.)
- 466/2013 DEKRETUA, 2013ko abenduaren 23koa, «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena. (2013ko abenduaren 30eko EHAA, 247. zk.).

Etxebizitza birgaitzea:

- AGINDUA, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa. (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA, 18. zk.).
- AGINDUA, 2011ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua aldatzeko dena. (2011ko azaroaren 29ko EHAA, 226. zk.).
- 317/2002 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. (2002ko abenduaren 31ko EHAA, 249. zk.).
- 317/2002 DEKRETUAREN huts-zuzenketa, abenduaren 30ekoa, Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzkoa. (2003ko apirilaren 7ko EHAA, 69. zk.).
- AGINDUA, 2012ko uztailaren 18koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntza-programa arautzen duena (REVIVE programa), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egiteko eta



haiek sorrarazitako obrak gauzatzeko. (2012ko uztailaren 27ko EHAA, 146. zk.).

- 241/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duena. (2012ko abenduaren 14ko EHAA, 241. zk.).
- AGINDUA, 2013ko uztailaren 31koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako laguntza-programaren deialdia eta arauak egiten dituena (RENOVE programa), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egiteko eta haiek sorrarazitako obrak gauzatzeko. (2013ko abuztuaren 20ko EHAA, 157. zk.).
- AGINDUA, 2014ko azaroaren 26koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko agindua bigarren aldiz aldatzen duena. (EHAA, 229. zk., 2014ko abenduaren 1a).
- 80/2014 DEKRETUA, maiatzaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen dekretua aldatzen duena (EHAA, 101. zk., 2014ko maiatzaren 30a).

Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:

- Kreditu-erakundeekiko 2011. urterako finantza-lankidetzarako HITZARMENA, etxebizitza eta lurzorua arloko jarduketara babesgarriari buruzkoa.
- 146/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Kreditu-erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. Izapidean (2015eko abuztuaren 4ko EHAA, 146. zk.).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri hiperesteka)

<u>EHAA, 119. zk., 2015. urtea</u>	Etxebizitzaren 3/2015 Legea
<u>EHAA, 170. zk., 2018. urtea</u>	2018ko etxebizitza-kredituen publizitaterako Agindua

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eraikita dagoen parkea birgaitzen laguntzeko helburu orokorraren barruan, partikularrek eta jabeekideen erkidegoek birgaitze-lanak egiteko dirulaguntzen lerroa dago, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, baita eraikin-egituraren kontserbazioa eta mantenua ere, desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna ahalbidetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.

Herritarrei eta jabe-erkidegoei daude zuzenduta dirulaguntzak.

Sistema honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten kreditu-erakundeek maileguak ematen dituzte (Administrazioaren eta kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren eremuan), eta zuzeneko dirulaguntzen sistema eta maileguen interes-puntuak sorospenen sistema artikulatzen da, araudiz ezarritako babes-kasu zehatzetan eta tasatuetan.



Intereseko sorospenen kasuan, etxebizitza babesturako lurzoria erosteko eta urbanizatzeko, eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko izaten dira bakar-bakarrik jarduera babestuak.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen kasuan, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta etxebizitza libre erabiliak erosteko ere izaten dira, aurreko bi helburuetarako ez ezik.

Dirulaguntzen modalitateei dagokienez, jarduera-tipologiaren arabera ezartzen dira, eta diskriminazio mailakatu baten sistema baten bidez, onuradunen errenta-mailaren eta lurralde-intentsitate erlatiboaren arabera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak.

100 milioi euroko finantzaketa dago jasota finantza-eremu egokia eta egonkorra eskaintzeko sustapenean, Eusko Jaurlaritzaren eta EAeko kreditu-erakundearen arteko finantza-hitzarmenaren bidez. Ekitaldi amaieran helburu horren betetze-mailari dagokionez, sistemari 25,26 milioi euroko finantzaketa eman zaiola adierazten da.

Balantze orokorrari dagokionez, behera egin dute onartu diren maileguen kopuruak (124 mailegu) eta finantzaketaren zenbateko osoak 2018an.

Maileguen zenbatekoa aztertzen badugu, 200.000 €koa da etxebizitza erosteko maileguen batezbesteko nominala.

Onartutako maileguen laburpen-taula, 2015-2018 (2018/12/31ean eguneratutako datuak)

Mota	2015		2016		2017		2018	
	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €
Sustapena	6	35.161	7	23.698	4	21.475	5	21.510
Birgaitzea	192	1.341	186	1.447	162	1.173	116	982
Etxeb. sozialak erostea	3	130						
BOEak erostea	61	6.014	44	4.386	15	1.415	2	221
Etxeb. erabiliak erostea	25	2.417	19	1.970	10	1.121		
Udaleko tasatuak erostea								
Alokairukoak erostea	1	3.740			1	542		
Zuzkidura-bizitokiak							1	2.543
Guztira	288	48.803	256	31.501	192	25.726	124	25.256

Birgaitzeko maileguei erreparatzen badiegu, ez da ikusten aldaketa handirik, baina, orokorrean, behera egin dute bai kopuruari bai zenbatekoari dagokienez.

Azterketa diferentziala eginez gero, ikus dezakegu maileguen % 84,5 birgaitze isolaturako dela; % 15,5,



aldiz, birgaitze integraturako.

Etxebizitzak birgaitzeko onartutako maileguak (2018/12/31ean eguneratutako datuak)

Maileguak	2015		2016		2017		2018	
	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €
Birgaitze isolatua	175	1.204	154	1.169	140	961	98	798
Birgaitze integratua	17	137	32	278	22	212	18	184
Guztira	192	1.341	186	1.447	162	1.173	116	982

Dirulaguntzen kapituluaren emaitzei dagokienez, 2018ko datuak berretsi egiten dute dirulaguntzen % 99,6 birgaitzeko erabiltzen dela, kopuruari nahiz zenbatekoari dagokienez.

Dirulaguntzen guztizkoak, % 47, egiturazko obrak egiteko erabiltzen dira; % 29, berriz, etxebizitzak egokitzeko.

Etxebizitzak birgaitzeko eta eskuratzeko, 2018an emandako dirulaguntzen kopuruak behera egin du apur bat, 2017 urtearen aldera.

Etxebizitzen dirulaguntzak (2018/12/31an eguneratutako datuak)

Dirulaguntzak	2015		2016		2017		2018	
	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €	Kp.	Mila €
Eskuratzailak	194	74	87	65	79	121	53	97
Birgaitzea	12.510	14.575	12.655	15.783	15.282	20.968	13.397	17.907
	12.704	14.650	12.742	15.848	15.361	21.089	13.450	18.004

Birgaitzeko dirulaguntzen banakatzea, obren arabera eta inbertsioen aurrekontu induzitu osoaren arabera (eurotan):

	2015	2016	2017	2018
Dirulaguntza	14.575.218,37	15.782.901,65	20.967.625,44	17.907.331,99
Egitura	7.669.325,93	8.478.219,24	9.861.900,33	8.339.361,00
Akabera	120.956,69	141.416,27	111.965,51	125.750,00
Egokitzea	16.128,31	0,00	0,00	0,00
Moldatzea	3.452.873,23	3.974.373,49	5.159.540,49	5.103.929,00
Inguratzailak	2.305.610,03	2.793.333,84	5.696.195,67	4.313.875,00
Ordainsariak	1.010.326,20	391.422,65	138.023,44	24.416,00
Babespeko aurrekontua	233.487.768,49	266.888.691,25	296.960.767,08	424.237.152,10

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak



<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	15.000	10.445
Lokal-kopurua		500
Komunitate-kopurua		2.452
Instalaturako igogailuen kopurua	1.300	389
Eraginkortasun energetikoa hobetu duten etxebizitza-kopurua		1.592



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko dirulaguntzak (Renove Programa), euskal autonomia erkidegoko ondare eraikian esku-hartzeko proiektuak egiteko eta eragindako obrak gauzatzeko

2.- Araua

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 8ko Agindua, 2018rako laguntza-programaren deialdia egiten eta arautzen da etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko (RENOVE Programa), Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko eta haiek sorrarazitako obrak gauzatzeko asmoz.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI hiperesteka)

Deialdia: EHAA, 117. zk., 2018ko ekainaren 19a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803155a.shtml>

Dirulaguntza emateko ebazpena: EHAA, 52 zk., 2019.eko martxoaren 14a

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/03/1901350a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Nagusiki etxebizitza gisa erabiltzen diren eraikinetan edo familia anitzeko eraikin multzoetan esku hartzeko izango dira esku-hartzeko proiektu horietan proposatutako jarduketak. Lehentasuna izango dute etxadietan multzokatutako familia anitzeko eraikin multzoek eta etxebizitza-blokeetan multzokatutako familia anitzeko eraikin multzoek. Bigarrenik, aintzat hartuko dira gutxienez etxadiaren albo bat hartzen duten familia anitzeko eraikin multzokatuak eta etxebizitza-blokeen albo bat osatu arte multzokatutako familia anitzeko eraikin multzokatuak.

Eraikinek 1980 urtea baino lehen eraikiak izan beharko dute, eta hirigintzazko nahiz egiturazko egokitzapena izan beharko dute, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuari jarraituz.

Eraikinen irisgarritasuna, bizigarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzea izan beharko du laguntza-programa honi heltzen dioten ondare eraikian esku hartzeko proiektuen helburuak, Agindu arautzaileak adierazitako baldintzak betez.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Adierazitako epearen barruan 26 eskabide aurkeztu ziren; haietatik, atzera egin dute 4 eskabidek, 2 ukatu dira, eta 20k jaso dute 6.175.000,00 €-ko diru-laguntza (aurrekontutako kopurua), Lurraldez horrela banatuta:

<u>Lurraldea</u>	<u>Etxebizitza kop.</u>	<u>Emandako diru-laguntza</u>
Bizkaia	148	1.202.954,00 €
Gipuzkoa	180	2.045.537,10 €
Araba	402	2.926.508,90 €
Guztira	730	6.175.000,00 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	882	730



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dirulaguntzak Udalentsat, toki-erakunde txikientzat eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzat, irisgarritasun-planak egiteko eta eguneratzeko, eta hiri-ingurunean eta eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko irailaren 5koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena. Honen bidez, 2018ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzen dira udalentsat, tokiko organismo autonomoentzat, toki-erakunde txikientzat eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzat, eta haietarako deialdia egiten da, irisgarritasun-planak egiteko eta eguneratzeko xedez eta, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia: EHAA, 177 zk., 2018ko irailaren 13a
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/09/1804505a.shtml>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019002160>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Jarduketa hauek jaso ditzakete dirulaguntzak (erakunde bakoitzari gehienez eman ahal izango zaion laguntzaren zenbatekoa 300.000,00 eurokoa da):

- a) Irisgarritasun-planak egiteko eta idazteko lanak, eta plan horiek eguneratzeko lanak.
- b) Hiri-izaerako plataforma jasotzaileak eta igogailuak jartzeko obrak.
- c) Eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko obrak. Halakotzat hartzen dira obra hauek: igogailu eta plataforma jasotzaileak, arrapalak, komunak eta aldagela egokituak, ateak eta eskudelak.
- d) Hiri-ingurunean egindako obrak, arrapala ez-mekanikoak egiteko, ibiak sortzeko eta eskudelak instalatzeko.
- e) Kaleak urbanizatzeko obrak. Halakotzat hartzen dira obra hauek: espaloiak zabaltzea, zoladura pododaktilak instalatzea, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku-plazen erreserba egitea, oinezkoen ibilbideak murrizten dituzten oinezkoentzako pasabideak, plataforma bakarra kaleetan, eta zuhaitz-txorkoak ixtea.
- f) Eraikinetan seinaleak eta ekipamendu egokituak eskuratzea eta instalatzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Dirulaguntzak emateko, 6.400.000 € bideratu ziren guztira (480.000 € 2018. urtekoak dira, 2.960.000,00 € 2019. urtekoak, eta 2.960.000,00 € 2020. urtekoak).

Esleitutako zenbatekoak:

<u>Jarduketa</u>	<u>Esleitutako zenbatekoa</u>
Planak	292.708,50
Hiriko igogailuak	2.593.630,25
Eraikinak	1.602.108,83
Arrapalak, ibiak...	474.296,03
Urbanizazioak	1.437.256,39
GUZTIRA	6.400.000,00

166 jarduketak diruz lagundu dira, 95 onuradunei:

- Arabako 15 udal: 2 plan eta 27 obra
- Bizkaiko 30 udal: 9 plan eta 42 obra
- Gipuzkoako 45 udal: 13 plan eta 68 obra
- Arabako erakunde pribatu bat: jarduketa bat
- Bizkaiko 4 erakunde pribatu: 4 jarduketa

Aurrekontu-dotazio nahikorik ez izateagatik, 23 jarduketa baztertu ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Planen proiektu-kopurua eta irisgarritasun-obrak eta	140	166



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna bultzatzeko eta berritzen laguntzeko proiektuak sustatzeko dirulaguntzak, Eraikal Programa

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko irailaren 5koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, 2018rako dirulaguntzak arautzen dituena eta haien deialdia egiten duena Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kudeaketa-sistemak ezartzeko eta hobetzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa sustatzeko, jasangarritasuna indartzeko eta berrikuntzari laguntzeko (Eraikal 2018 programa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri hiperesteka)

Deialdia: EHAA, 177 zk., osteguna, 2018ko irailaren 13a <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/09/1804504a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

ERAIKAL Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ekimen bat da, obra berriari nahiz birgaitze- eta mantentze-lanetan eta Eraikinen Ikuskapen Teknikoetan kalitatearen kudeaketa bultzatzeko. Era berean, eraikinak eraitea eta birziklatzea aurreikusten duen ekimen bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresek barnean har dezaten eraikinaren balio-bizitza osoa, ingurumena, laneko arriskuen prebentzioa, jasangarritasunaren sustapena eta berrikuntzarako laguntza.

Aurrekontu-zuzkidura 450.000,00 € izan da.

Programa lerro hauetan banatzen da:

- I. lerroa: berrikuntza-proiektuak edo -azterketak.
- II. lerroa: informatikako tresnak garatzea, eta dibulgazio-kanpainak, jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak garatzea.
- III. lerroa: kudeaketa-sistemak ezartzea eta ziurtatzea.
- IV. lerroa: eraikinetara bideratutako ziurtagiriak ezartzea eta egiaztatzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren emaitzak:

<u>Lerroa</u>	<u>Proiektu kop.</u>	<u>Emandako diru-laguntza (€)</u>
I. leroa	6	149.385,02
II. leroa	6	132.693,75
III. leroa	20	55.602,50
IV. leroa	1	1.700,00
Guztira	33	339.381,27

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eraikal programak diruz lagundutako proiektuak	50	33



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Natura-Ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuei dirulaguntzak ematea

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko maiatzaren 25ekoa (ekainaren 6ko EHAA, 108. zk.), Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezarri eta horiek emateko deialdia egiten baita 2018. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1802946e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900270e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua zera da, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuko natura-ondarea kontserbatzeko ikerketa aplikatua oinarrituriko azterlanak eta ikerlanak sustatzea, betiere Natura 2000 Sareko eremuen gainean, hauek barne direla: espazioen arteko koherentziaren hobekuntza, arriskuan dauden basafauna- eta basaflore-espezieak, eta biodibertsitateko beste elementu batzuk, hala nola erkidego- eta eskualde-intereseko habitatak, hezeguneak, espezie exotiko inbaditzaileak, paisaia, etab.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren aurrekontua 160.000,00 €koa izan da.

Epearen barruan aurkeztutako eskabideak 21 izan dira. 11 ikerketa-proiektu lagundu dira diruz (Arabara 4, Bizkaian 3 eta Gipuzkoan 4. Aurrekontuaren % 42 Arabara joan da, % 18 Bizkaia eta % 40 Gipuzkoara.

Gaien arabera, proiektu gehienak basafaunaren eta basaflorearen kontserbazioaren inguruko hainbat alderdiri buruzkoak dira; gehienak faunaren ingurukoak dira.

16 hilabetekoa da ikerketa-proiektuak materialki gauzatzeko epea; hori horrela izanik, faunaren eta floran jarduera-denboraldi oso bat bermatzen da (udaberria-uda-udazkena). Ikerketa-gai batzuek, ordea, jarduera-denboraldi oso bat edo bi behar dituzte landa-lanean hartutako datuak egiaztatzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: diruz lagundutako proiektuen kopurua

Aurreikuspena: 10

Emaitza: 11



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten Udalei, Mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, Tokiko Erakunde Autonomoei, Tokiko Garapen-Agentziei eta Tokiko Merkataritza-Sozietateentzat dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 6koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, toki-erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena eta dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri hiperesteka)

Arau erregulatzailea, deialdia

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803080e.shtml>

Emateko ebazpena

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/02/1901064e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko honako erakunde hauei zuzendutako dirulaguntzak ematea: udalak, mankomunitateak, beste toki-erakunde batzuk, toki-erakunde autonomoak, tokiko garapen-agentziak eta tokiko merkataritza-sozietateak. Betiere, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituztenean, honako lerro hauekin bat etorritik:

- a) Lurzoru kutsatuak. Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerlanak, prebentzioa eta lehengoratzea egiteko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa. EAEn egoera arintzeko ekintzak –berotegi-efektuko gasen isurpen garbiak murrizteko ekintzak– eta egokitzeko ekintzak –klima-aldaketaren ondorioak murriztera bideratutako plangintza eta ekintzak–.
- c) Natura-ondarea eta biodibertsitatea. EAeko dibertsitate biologikoa eta geodibertsitatea kontserbatzeko eta horiek leheneratzeko edo hobetzeko ekintzak.
- d) Ekonomia zirkularra. Hondakinak ez sortzeko –batik bat elikagaien xahubidea eta biohondakinen sorkuntza galarazteko– ekintzak.
- e) Jasangarritasunerako hezkuntza. Eskolako 21 Agenda eta Tokiko 21 Agenda koordinatzea sustatzen duten ekintzak.

Aurrekontu-zuzkidura 2.160.000 eurokoa izan da.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

134 eskabide jaso dira guztira (Kutsatutako lurzorua: 22, Klima-aldaketa eta Atmosfera: 22, Natura-ondarea eta Biodibertsitatea: 26, Ekonomia zirkularra: 11, eta Jasangarritasunerako hezkuntza: 47).

121 proiektuk jaso dituzte dirulaguntzak:

- Lurzoruen kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko 22 proiektuk 628.578,75 € jaso dituzte.
- Klima-aldaketaren alorreko 19 proiektuk 610.965,41 € jaso dituzte.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura-ondarearen eta Biodibertsitatearen alorreko 21 proiektuk 506.310,78 € jaso dituzte dirulaguntzetan.
- Ekonomia zirkularren alorreko 10 proiektuk 159.957,92 € jaso dituzte.
- Jasangarritasunerako hezkuntzaren alorreko 47 proiektuk 260.000 € jaso dituzte.

Ingurumen-emaitzak

Dirulaguntzen 2018ko deialdian jasotako jarduketak egiteko epea 2020ko urriaren 31n amaitzen denez, diruz lagundutako proiektuen ingurumen eragin potentzialaren gaineko datuak bakarrik ditugu oraingoz:

- Klima-aldaketaren lerroan dirulaguntza esleitu zaien 22 proiektuen barnean, honako hauek hartzen dira: 4,86 kilometro bidegorri sortzea; ibilgailu elektrikoak edo hibridoak erostea; klima-aldaketara egokitzeko plan bat idaztea; eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak abiaraztea. Proiektu horiek gauzatuta, aurreikusten da urtean 280 t CO₂, 16 kg partikula eta 310 kg NOx gutxiago sortuko direla eta aldirietako aparkalekuetarako 135 plaza sortuko direla.
- Natura-ondarearekin eta Biodibertsitatearekin lotutako proiektuei dagokionez, diruz lagundutako 23 proiektuen artean, beste behin ere, ohikoenak intereseko habitatak leheneratzera bideratutakoak izan dira. Deialdi honetan, erkidegoan edo eskualdean babestutako basafloa- eta basafauna-espezieak babestu eta kontserbatzeko proiektuak nabarmentzen dira. Horri esker, habitat naturalen 190 ha lehengoratu eta espezie autoktonoekin birpopulatuko dira. Bestalde, alor horretan hondakinak kentzeko garbiketa-lanak sustatuko dira. Horretaz gain, espezie inbaditzaile batzuk –*Robinia pseudoacacia*, *Fallopia japonica* eta *Buddleja davidii*– kontrolatzeko lanak eta beste espezie batzuk – *Thelypteris palustris*, *Juncus acutus* eta *Ruscus aculeatus*, besteak beste– berreskuratzekoak ere sustatu dira.
- Kutsatutako lurzoruen lerroari dagokionez, ikertu eta leheneratzeko azalera potentziala ebaluatu da. Onartutako 22 eskabideek, guztien artean, ikertu edo leheneratzeko 27,5 hektarea hartzen dituzte barruan. Horietako 25,1 ha ikertzeko dira, eta gainerako 2,4 hektareak, ordea, berreskuratzeko. Esparru horretan, industriako aurriak berreskuratzeko proiektu bati laguntza eman zaiola nabarmendu behar da.
- Bestalde, ekonomia zirkularra sustatzeko, ia 160.000 euro banatu dira 10 proiektuen artean. Horien barnean, nabarmentzekoak dira organikoa biltzeko edukiontzien erabiltzaileak identifikatzeko



sistemak instalatzeko proiektu bat eta biohondakinen gaikako bilketaren ratioa hobetzeko beste bat. Horretaz gain, elikagaien xahubidearen ganean sentsibilizatzeko proiektu batek ere laguntza ekonomikoa jaso du. Ekonomia zirkularreko proiektuak gauzatuta, espero da 490 tona biohondakin baino gehiago birziklatu ahal izatea.

- Azkenik, jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroak EAEko 103 udal baino gehiago, 364 ikastetxe eta lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako 185.000 ikasle baino gehiago hartu ditu barnean; klima-aldaketaren, biodibertsitatearen eta kontsumo arduratsuaren alorretan (besteak beste) hobetzeko proposamenak egin dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Tokiko erakunde onuradunen kopurua	75	86
Murriztutako CO ₂ tonak (t CO ₂ /urte)	1000	280
Atmosferara bidaltzea galarazitako partikula kilogramoak (Kg PM10/urte)	500	16
Isurtzea saihestutako oxido nitroso kilogramoak urtean (Kg NOx/urte)	1500	310
Ikertu edo leheneratu diren potentzialki kutsatutako lurzoru hektareak	15	27,6
Ekonomia zirkularreko proiektuen kopurua	10	11



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei, Eskolako Agenda 21 Programa garatzeko dirulaguntzak

2.- Arua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 5ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena eta Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Eskolako Agenda 21 programa garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten baita (2018-2019 ikasturtea).

3.- Programaren arua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI hiperesteka)

Arau erregulatzailerak eta Deialdia. 2018ko ekainaren 12ko (asteartea) EHAA, 112. zk.

<http://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/06/1803031e.pdf>

Emateko ebazpena. 2019ko otsailaren 8ko (ostirala) EHAA, 28. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/02/1900690e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ezinbestekotzat jotzen du erakundeek dirulaguntzak ematea, ikastetxeetan jasangarritasunerako hezkuntzako proiektu espezifikoek ekiteko; izan ere, proiektu horiek, batetik, bai ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan bai ikasgeletako programazioetan ikuspegi hori sendotuko dute, eta, bestetik, ikasleei edo hezkuntza-komunitateari garapen jasangarrian konprometitzeko gaituko dituzten kontzientzia, gaitasuna, ezagutzak eta balioak garatzen lagunduko diete.

Eskolako Agenda 21 programa ikastetxearen kalitaterako eta jasangarritasunerako hezkuntza-programa bat da. Hezkuntza-komunitatearen partaidetzan dago oinarrituta, ikasleriari aparteko protagonismoa emanaz eta udalerriren garapen jasangarrian lagunduz. Gainera, Eskolako Agenda 21ek hezkuntza-praktika bat proposatzen du, ikasleek jakin dezaten, dagokien mailan, zein diren euren ingurune ingurumen-arazoak, arazo horietaz jabetu daitezenean eta, halaber, arduraz parte har dezaten bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egonik unibertsitateaz kanpoko mailetan dauden ikastetxe publiko eta pribatu guztiek parte har dezakete deialdian, betiere Eskolako Agenda 21 Programa txertatuta daukan udalerriren batean badaude.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laburbilduz, honako hauek izan dira Eskolako Agenda 21 programaren 2018ko deialdian emandako dirulaguntza guztiak eta diruz lagundutako proiektu denak:

	2018-2019KO DEIALDIA	
	PROIEKTUAK	ZENBATEKOA
ARABA	48	83.187 €
BIZKAIA	234	405.136 €
GIPUZKOA	160	261.677 €
GUZTIRA:	442	750.000 €

Ikusten dugunez, 2018-2019 ekitaldian diruz lagundu diren ikastetxeen kopurua aurreko ikasturtekoaren oso antzekoa da (442 ikastetxe), Eskolako Agenda 21 programan parte hartu duten EAEko derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxeen –unibertsitateaz kanpokoan– % 53 inguru, hain zuzen ere.

219.834* ikaslek eta 1.981* irakaslek parte hartzen dute Eskolako Agenda 21 programan, parte hartu duten udalerrietako arduradunetz, teknikariez eta irakasle ez diren langileez gain.

* Eskabideetatik ateratako datuak Justifikazioaren eraginpean jartzeke geratzen diren behin betiko datuak.

83 prestakuntza-ikastaro eman zaizkie (online ikastaroak eta ikastaro presentzialak) Eskolako Agenda 21 programan parte hartu duten irakasleei; 1.789 irakaslek hartu dute parte, guztira, ikastaro horietan.

«Eskola Jasangarriaren» Ziurtagiria jaso duten ikastetxeen kopuruari dagokionez, 2018-2019 ikasturtean 104 ikastetxek jaso dute ziurtagiri hori EAEn; aurreko deialdian, ordea, 98 izan ziren. Agenda 21en ebaluaziorako sistema berri bat –auditoretzak efikazia handiagoz egitea ahalbidetzeaz gain, ikastetxeak Eskola Jasangarrien Sarean sar daitezen faboratuko duena– lantzen jarraitzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	440	442
Parte hartu duten ikasleen kopurua	210.000	219.834
Parte hartu duten irakasleen kopurua	2.048	1.981
Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria duten ikastetxeak	98	104



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ingurumen-arloko boluntario-proiektuak egiten dituzten Irabazi-Asmorik Gabeko Erakunde pribatuentzat dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko urriaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazte-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta laguntzon deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari hiperesteka)

Arau erregulatzaileria eta Deialdia. EHAA, 205. zk., 2018ko urriaren 24koa (asteazkena)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/10/1805206e.shtml>

Emateko ebazpena. EHAA, 21. zk., 2019ko urtarrilaren 30ekoa (asteazkena)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/01/1900501e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza-programa honen helburua Natura 2000 Sareko esparruan jarduketak sendotzea da, klima-aldaketaren aurkako borrokari eta ekonomia zirkularri dagokienez, eta EAeko Laugarren Ingurumen Esparru Programan (2020) ezarritakoaren arabera. Ingurumen-erronka horien artean, ardua sektore publikoaren eta pribatuaren artean banatzeari eta herritarrek gero eta gehiago sentsibilizatzeari lehentasuna emango dien gobernantza publiko bat sortzea da. Azken finean lortu nahi da ingurumenarekiko konpromisoa pertsonengan sakon errotzea, herritarren balio-eskeman sar dadin.

Ingurumen-boluntariotza da herritarrek parte hartzeko era libre, altruista eta zuzena; eta era berean honako emaitzak eragiten ditu: ingurunea hobetzea; eta ingurumena hobetu eta kontserbatzeko motibazioari eta inplikazioari dagokienez eraldaketa pertsonal eta sozial sakona. Eta ikusten denez, aipatutako helburuak lortzeko tresna eragingarrietako bat da.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak babestu egiten ditu irabazi-asmorik gabe egiten diren ingurumenaren inguruko boluntario-proiektu guztiak eta, horretarako dirulaguntza-lerro hau sustatzen du, hezkuntzarako, gizarte-kontzientziarako eta ingurumenerako hain onuragarriak diren jarduketak horiek sustatzeko.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko deialdian diruz lagundutako proiektuen eta emandako dirulaguntzen laburpena:

	Eskaera kopurua	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa
ARABA	1	10.268,80 €	8.068,75 €
BIZKAIA	11	109.156,96 €	87.425,30 €
GIPUZKOA	4	35.622,98 €	24.505,95 €
Guztira	16	155.048,74 €	120.000,00 €

Jarduera motak:

- Ingurumena eta paisaia leheneratzea edo/eta garbitzea, espezie autoktonoak kontserbatzea eta hazien bankuak sortzea: 9 proiektu.
- Ingurumen-sentsibilizazioa: 7 proiektu

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Proiektu kop.	15	16
Parte hartu duten boluntarioen kopurua:	600	1.725
Zuzeneko pertsona onuradunen kopurua:	867	2.492

Eskabideetatik ateratako datuak, justifikazioaren eraginpean jartzeke geratzen diren behin betiko datuak.



1.- Dirulaguntzen programaren izenburua

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak

2.- Araua

202/2015 Dekretua, urriaren 27koa, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari hiperesteka)

Arau erregulatzailerak: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/11/1504702e.shtml>

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/06/1803055e.shtml>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/01/1900177e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa lerro hauetan garatzen da:

- a) Ingurumenaren babeserako Batasunaren arauetatik haragoko laguntzak, edo, Batasunaren araurik ezean, ingurumenaren babes-maila handitzen dutenak;
- b) Batasunaren etorkizuneko arauetara aldeztu aurretik egokitzeko laguntzak;
- c) Ingurumen-azterlanak egiteko laguntzak;
- d) Hondakinak berrerabiltzeko eta birziklitzeko inbertsioetarako laguntzak;
- e) Lur kutsatuak saneatzeko laguntzak, ezin bada identifikatu zein den kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera;
- f) Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak, ingurumenaren alorreko aholkularitza-zerbitzuetarako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018ko ekitaldirako aurrekontuen memorian jasotako adierazleen betetze-maila honako hau da:

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	100	46
Diruz lagundutako enpresen kopurua	100	41
Enpresei emandako laguntzen ondoriozko inbertsioen zenbatekoa (milioi eurotan)	25	10,99
Dirulaguntzaren amaierako inbertsioaren gaineko ehunekoa	% 7	% 12,46

Deialdian, 56 eskaera jaso ziren, eta 46ri esleitu zitzaizkien dirulaguntza, honela banatuta:



Lerroa	Azpileroa	Eskaera kopurua	Emandakoak
Prozedura arrunta:			
Prozedura arrunta	EBko arauetatik harago doazen inbertsioak	34	28
	EBko etorkizuneko arauetara aldez aurretik egokitzea	1	1
	Ingurumen-azterlanak	1	0
	Hondakinak birziklatu eta berrerabiltzea	3	3
	Lurren saneamendua	2	0
Gutzizko partziala		41	32
Prozedura erraztua:			
Inbertsioak	Hondarrak eta pikor xeheak	2	2
	BBA handiko hondakinak	0	0
	Hondakinak berrerabiltzeko prestakuntza-eragiketak	1	1
Beste enpresa batzuen hondakinak birziklatzeko inbertsioak	Plastiko bromatuak identifikatu eta bereiztea	0	0
	CTVFU informatika-sistemak	0	0
	Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskontaminazioa hobetzeko gailuak/makinaria	2	2
	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen nahasketak bereizteko gailuak/makinaria	0	0
	Eraikuntzako elementuak berrerabiltzea	0	0
Azterlanak	Azterlanak	4	4
ETEei aholkularitza ematea	EMASen sustapenerako elkarteak	0	0
	EMASen izena ematea	0	0
	EMAS berritzea	1	1
	Ekodiseinua, ekoetiketak eta karbono-aztarna	4	4
	Lurzoruaren kalitatearen adierazpena	1	0
Gutzizko partziala		15	14
GUZTIRA		56	46

Deialdirako aurrekontuko diruzko zuzkidura 1.500.000 eurokoa izan zen.

Emandako 46 dirulaguntzei dagokien inbertsio garbiaren guztizko zenbatekoa 9.215.975,01 eurokoa da (inbertsio gordina 10.987.812,63 eurokoa da).

Deialdi honetan diruz lagundu diren proiektuak ezarri ondoren **espero diren ingurumen-onurak** kuantifikatzeari dagokionez, jarraian zehazten dira urteko zenbateko nabarmenenak:



- Atmosferara igortzen diren gas kutsatzaileak murriztuko da: 384,80 tona partikula, 9,3 tona KOG eta beste gas batzuen 3,85 tona (esaterako, HCl).
- Halaber, 63.000 metro kubiko ur baino gehiago aurreztuko dira, isuri likido industrialetan sortzen diren karga organikoen 44,36 tona eta beste kutsatzaile batzuen (olioak, sulfatoak, metalak...) 16,0 tona murriztu.
- Horrez gain, hondakin gutxiago sortuko dira: hondakin arriskutsuen kasuan, 666,15 tona gutxiago, eta arriskutsuak ez diren hondakin industrialen kasuan, 8.000 milioi tona inguru gutxiago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Espero diren emaitzak
Enpresek egindako inbertsio garbia	9.215.975,01 €
Emisioak murriztea	384,80 tona partikula, 9,3 tona KOG eta beste gas batzuen 3,85 tona
Hondakinak murriztea	Hondakin arriskutsuen 666,15 tona eta hondakin industrial ez-arriskutsuen 8.000 tona.

Oraindik ezin dira deialdiaren behin betiko emaitzak zehaztu jarduketak ez baitira bukatu.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

“Udalen Informazio Geografikoa” Programaren xedea da dirulaguntzak ematea, informazio geografikoa hobetzeko, udal mapak egiteko eta, ondoren, horiek hedatzeko

2.- Araua

Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez, dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri ziren, eta deialdia iragarri zen dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko udalei emateko, informazio geografikoa hobetu dezaten eta udal mapak egin eta hedatu ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari hiperesteka)

Arau erregulatzailerak eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/07/1803612a.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/11/1805562a.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea EAEko udalei dirulaguntzak ematea da, udal-mugartearen mapa digital bat egiteko gastuak ordaintzen laguntzeko (paperean ere inprimatu daitezke). Mapa topografikoetan jaso ohi diren elementu guztiak bildu, berraztertu eta kokatu beharko dituzte, eta, gainera, gutxienez, toponimia, kale-izendegia, eta interes publikoko hiri-elementuak, instalazioak eta zerbitzuak ere jaso beharko dituzte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

20 udali eman zaie dirulaguntza; guztira, 184.491,67 € eman dira, hau da, aurrekontuan jasotako zenbatekoaren % 92,19 (200.000 euro), eta horrek 316.035 biztanleri eragiten die. Nabarmenezkoa da deialdi honetan 13 udal onuradunek paperezko mapa ere hautatu zutela, mapa digitalaz gainera.

Dirulaguntzaren xede izan diren lanen erabilgarritasun eta inpaktu sozialari dagokionez, azpimarratzekoa da udal guztiek toponimia berrikusi behar dutela, eta hori oso garrantzitsua dela gizartearentzat; izan ere, bestela, galdu egingo liriteke udal-mapetan egun islatuta eta bilduta ez dauden lekuen toponimoak. Lan horiei esker, Euskadiko Nomenklator Geografikoan ere sartzea lortu da.

Bestalde, balio du baliagarritasun handiko informazio geolokalizatua eskaintzeko udalen web-etan: ekipamendu publikoak eta pribatuak, zerbitzu publikoak, atari- eta kale-izendegiak, bideak, parajeak, etab.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Udal kopurua	25	20
Biztanle kopurua	150.000	316.035



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2018ko ekitaldirako, udal-plangintzan eta -hirigintzan genero-ikuspegia integrazteko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko uztailaren 4koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integrazteko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2018ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri hiperesteka)

Deialdia. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018003736>

Ebazpena. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2018/11/1805790a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Analisien, diagnostikoen eta ondorioen dokumentuak egiteko behar den laguntza teknikoa kontratatzeak eragiten dituen gastuak finantzatuko dira, barnean hartuta hirigintza-tresnak hobetzeko proposamenak edo neurri zuzentzaileak, genero-ikuspegiari dagokion aldetik, eta, zehatzago esanda, hauek:

- Eraikuntza- edo urbanizazio-ordenantzak proposatzea.
- Hirigintza-planeamendurako, genero-ikuspegia duten tresnak proposatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an 18 udalek eskatu zuten dirulaguntza. Haietako bik, atzera egin zuten gero; 1i, ezetz erantzun zitzaien eskari-gaia ez zitekeelako diruz lagundu; eta, beste biri, egunean jarri gabe zeuzkatelako Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. Guztira, 13 udali eman diegu dirulaguntza (1, Arabakoa; 11, Bizkaikoak; eta, 1, Gipuzkoakoa).

Guztira, 143.365,10 banatu genituen; aurrekontuaren % 72 (200.000 euro).

Dirulaguntza jaso duten 7 udalerrri planeamendu orokorra berraztertzeke hasierako fasean dira, eta tresna honetan oinarritzen dira; beste lau, indarrean duten planeamendu orokorrean oinarritzen dira; bat, ordenantzetan; eta, beste bat, udalerrriaren eremu zehatzean (eremu hori birgaitzeko plan berezian). Udalerrietako batek bi deialdietan jaso du dirulaguntza, baina laguntza-gaia ezberdina izan da: lehenengoan, ordenantzak; eta, bigarrean, planeamendu orokorraren hasierako fasea.

Programak betetzen du bere helburua, alegia, udal-planeamenduan eta hirigintzan genero-ikuspegia barneratzen laguntzea, eskala guztietan.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea		Aurreikuspena	Emitza_____
Hirigintzako zenbat tresna	EZ DAGO (*)	13	
Zenbat udalerrri	EZ DAGO (*)	13	

(*) Sortu berria dugu laguntza. Lehenagotik deialdi bakarra dago egina.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Paisaien ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udalei eta Arabako Udalerrien Kontzejuei diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2018ko ekainaren 27koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2018ko ekitaldirako paisaien ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018003677&BOPV_HIDE_CALENDAR=true

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018005158>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejueri paisaien ekintza-planak egitetik eratorritako gastuetarako diru-laguntza ematea da xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 6.1. artikulua xedatzen duenez, paisaien ekintza-planak kudeaketa-tresnak dira, eta, paisaiaren katalogoetan nahiz paisaiaren zehaztapenetan oinarrituta, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko jardueren esparruan egin behar diren ekintzak zehazten dituzte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2017ko deialdian, hauteskunde-giroa zela-eta, eskaera gutxi jaso ziren. Bada, eskaeren kopurua areagotzeko, diru-laguntza jaso zuten udalerri berrira aurkezteko aukera eman zaie 2018ko deialdian, esleipen hartatik hiru urte igaro badira.

Bestalde, gogorarazi beharra dago Eusko Jaurlaritzak Europako Paisaiaren 2009ko Itunera atxiki izanaren ondoriozkoak direla diru-laguntza hauek. Hortaz, ibilbide txikia dute egina, eta, oraindik ere, sektoreak ez du gaia guztiz ezagutzen, ikuspegi orokorretik ekin behar baitaio lurraldearen eta hirigintzaren plangintzari. Hala ere, funtsezko gaia da, izan bestelako gaiekin zeharka aritzeko, izan Europako beste herrialde batzuekin balioak eta ikuspegiak partekatzeko.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aurkeztutako eskaerak	15	5
Esleitutako diru-laguntzak	10	5
Esleitutako diru-laguntzen xede den biztanle-kopurua (biztanleak)	85.000	9.503
Diruz lagundutako planak exekutatzeke batez besteko aurrekontua (€)	25.000	18.648



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i Programa) «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

2018ko uztailaren 30eko Gobernu Kontseiluaren Akordioa AGINDUA, 2018ko uztailaren 31koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena; honen bidez, 2018ko ekitaldirako dirulaguntzak arautzeko oinarriak ezartzen dira eta horietarako deialdia egiten da, ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i programa) «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Programaren araua, deialdia 2018ko abuztuaren 24ko EHAA, 163. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/08/1804363e.shtml>

Emate-erabakia: 22019ko otsailaren 4ko EHAA, 24. zk.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/02/1900578e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da oinarri arautzaileak ezartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-habitataren arloko enpresentzako eta profesionalentzako diru-laguntzak emateko deialdia iragartzea. Lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira diru-laguntzok ZTBP Euskadi 2020ren (BAI+D+i programa) «Hiri Habitat» aukera-nitxoko helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko, bai eta auzoetako hiri-berroneratze integralerako proiektuetan berrikuntza sustatzeko ere, ikuspegi holistiko batetik helduta, jasangarritasunaren alderdi guztien multzoa aintzat hartuta (alderdi sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren aurrekontua 650.000 eurokoa izan da.

9 proiekturi eman zaie diru-laguntza (guztira, 634.124,36 €), eta 11 proiekturi ukatu zaie laguntza (10 proiektu deialdian eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik, eta bat bikoiztasunagatik).



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aurkeztutako eskaerak	15	20
Berrikuntzarako proiektu kopurua	6	9
Esleitutako diru-laguntzen xede den biztanle-kopurua (biztanleak)	94.200	137.675
Diruz lagundutako planak exekutatzeko batez besteko aurrekontua (€)	100.000,00	105.998,53